

# PAPAYA Bakery & Shop

Gure proiektua ama lurra babesteko beharretik irten da, kutsadura murrizteko eta berotze globala ekiditzeko produktuak eskaintzen ditugu. Arazo handiena berotze globalari dagokionez, abeltzaintza da, animaliek CO2 masiboki igortzen dutelako. Gainera, eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun produktu gehienak animalietan testatuta izaten dira.

Lan munduan, enpresek hirugarren munduko langileen lan eskubideak bortxatzen dituzte, soldata oso txikiak emanez, lan ordu gehiegi egin ondoren. Horregatik, guk ondorengo ardua hauek hartu ditugu:

Alde batetik, gure produktuak hiru R-ak betetzen dituzte (Reduce, Recycle and Reuse) eta horrekin batera gure hornitzaile guztiek haien langileen eskubideak errespetatzen dituzte. Beste alde batetik, animalietan testatuta ez dauden produktuak bakarrik eskaintzen ditugu, produktu nahiz beganoak nahiz gluten gabekoak ere salduz. Bukatzeko, ETE-i erosten diegu gure produktu gehienak, ETE-ak enpresa ertainak eta txikiak direlarik.

Vitoria Gasteizen lokal bat daukagu, bi zatitan banatuta dagoena. Zati bat denda da, non mota guztietako produktuak aurki ditzakezu, Larreako gazta batetik (abeltzaintza ekologikoa), makillajea edo detergente botila batera eta beste zatia kafetegia da, non eskuz egindako produktuak eskaintzen ditugu, hala nola, cupcakeak, gofreak eta mota desberdinetako kafetxoak.

